

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Gure proiektua aurrera doa eta, beraz, garapen egokia izan dezan, ezinbestekoak zaizkigu bezeroak, eta nola ez, haiei eustea funtsezkoa iruditzen zaigu. Prozesu luze bat izanik, gustatuko litzaiguke gure ohiko bezeroek haien esperientzia nola doan kontatzea eta noski, bezero berriek gurekin bat egitea harremanak hobetzeko ibilbide zoragarri honetan.

Gurasoekin konfiantzazko eremua sortzea nahi dugu, badakigu horrelako gaiez hitz egitea ez dela erraza ez haientzat eta ezta guretzat ere, baina ulertu beharra dago hitz egin gabe ez dela ezer konpontzen, horregatik eta puntu garrantzitsuenetako bat konfianza dela buruan izanik, gurasoekin izango dugun harremana pertsonala izango da, aurrez-aurrekoa.



Komunikazioa beti kontuan izan beharreko puntu oso garrantzitsua da; oso gai sentikorra izanik tentu handiz ibili behar gara erabiliko ditugun hitzak hautatzean, oso erraza baita nahigabe norbaiti min egitea. Ahalik eta gehien eta ondoen saiaturako gara haiei laguntzen eta haien beharrak asetu ahal izateko garbi dago aurrez aurreko harremana baino hoberik ez dagoela. Harreman automatizatu bat ere izango genuke, ostean aipatu bezala, izen ematearen kasuan web orri bat erabiliko baikenuke guraso horiek izena eman dezaten.

Horrez gain, gurasoek etxean prozesua aurrera daramaten bitartean zalantzaren bat sortzen bazaie, edo aholkuren bat behar badute, gu prest egongo ginateke deiak, edo mezuak erantzuteko, beraz, aurrez-aurreko harremanaz gain, teknologia bidezko harremana izango dugu. Horretarako, gure enpresaren emaila eta mugikor zenbakia emango ditugu, denentzat eskuragarri izateko, eta gure saioen amaieran, aipatu informazioa zabalduko dugu, inor lotsa ez dadin deitu edo emaila bidaltzeko, enpresak pribatizazio hori gordeko duelako.



Bukatzeko, aipatu beharra dugu, nahiz eta gure bezero nagusiak ez izan proiektuaren garapenean, proposamen hau aurrera eramateko, udaletxea ere behar dugula, eta erakunde horrekin gutxieneko harremana mantendu behar dugula. Zerbitzu hau Euskal Herri mailan emango dugunez, eta saio bat baino gehiago egin beharko ditugunez, zenbait baliabide udalaren esku izango dira, eta baliabide horien eskuragarritasuna ezinbesteko zaigu, aretoak, besteak beste. Udalarekin, ahal den heinean, aurrez aurreko harremana lehenetsiko dugu, eta, bestela, automatizatu. Orobat, udaletxeei ere gure email eta telefono zenbakia emango diegu, edozein gauza gertatu edo zerbait behar badute zalantzarik ez izateko eta guri galdetzeko.